

ISSN: 2530-6561
2019ko azaroa
Bilbao

hegoak zabalduz

Hegoa, Nazioarteko
Lankidetzeta eta
Garapenari Buruzko
Ikasketa Institutua

Universidad del
País Vasco /
Euskal Herriko
Unibertsitatea
UPV/EHU

Gatazka armatuak, bakea eta garapena

Itziar Mujika Chao
iker zirion landaluze



Universidad
del País Vasco



Euskal Herriko
Unibertsitatea



INSTITUTO DE ESTUDIOS SOBRE DESARROLLO Y COOPERACION INTERNACIONAL
IKASBETEA LANIKIDETZA ETA GARAPENARI BURUZKO IKASKETA INSTITUTUA

Gatazka armatuak, bakea eta garapena

Itziar Mujika Chao eta iker zirion landaluze

UPV/EHUko Nazioarteko Zuzenbide Publikoa, Nazioarteko Harremanak eta Zuzenbidearen Historia Saileko irakasleak, eta Hegoa Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutuko ikertzaileak.

Aurkibidea

1. Sarrera	5
2. Gatazken eta bakearen definizio anitzak	6
2.1. Gatazka armatuak: ezaugarriak eta eraldaketa	6
2.2. Bakearen definizio tradizionaletik garapenerantz	11
3. Gatazka armatuak eta horien eragina garapenean	13
3.1. Gatazka armatuen zergatien aniztasuna	13
3.2. Gatazka armatuen zergati ekonomikoak	14
4. Gatazka armatuak eta generoa	16
4.1. Genero desberdintasuna eta gatazka armatuen arteko lotura	16
4.2. Gatazka armatuen ondorioak populazioaren eta (batez ere) emakumeen garapenean	17
5. Azken gogoetak	18
Bibliografia	19

Erredakzio kontseilua

Zuzendaritza: Xabier Gainza
Irati Labaien

Kideak: Eduardo Bidaurratzaga
Iker Etxano
Mertxe Larrañaga
Elena Martínez Tola
Mikel Zurbano

hegoak zabalduz euskarazko material bildumak ikuspegi zabal batetik garapenarekin lotutako askotariko gaiak jorratzea du helburu. Testuak didaktikoak eta dibulgazio mailakoak dira, eta gaien inguruko sarrera edo ikuspegi orokorra ematen dute.

[Gatazka armatuak, bakea eta garapena](#)

Egileak: Itziar Mujika Chao, iker zirion landaluze

hegoak zabalduz - 13. zk. 2019ko azaroa

ISSN: 2530-6561



www.hegoa.ehu.eus

UPV/EHU. Zubiria Etxea
Lehendakari Agirre Etorbidea, 81
48015 Bilbao

Tel.: 94 601 70 91
Faxa: 94 601 70 40
hegoa@ehu.eus

UPV/EHU. Carlos Santamaría Zentroa
Elhuyar Plaza, 2
20018 Donostia-San Sebastián
Tel. 943 01 74 64
Faxa: 94 601 70 40
hegoa@ehu.eus

UPV/EHU. Arabako Campuseko Liburutegia
138. posta-kutxa
Nieves Cano, 33
01006 Vitoria-Gasteiz
Tel. / Faxa: 945 01 42 87
hegoa@ehu.eus

Diseinua eta Maketazioa: Marra, s.l.

hegoak zabalduz material bilduman argitaratzen diren testu guztiak,
Creative Commons en lizentzia honekin argitaratzen dira:

Aitortu-EzKomertziala-LanEraterririkGabe 3.0 Espainia.



Lizentzia osoa:

<https://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/es/legalcode.eu>

Finantzatzailea:



Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentua
Departamento de Cultura, Turismo, Juventud y Deportes

Laburpena: Historian zehar bai gatazka armatuak bai bakea oso modu murriztean ulertu izan dira. Analisi eta ikasketa hegemonikoek, boteretsuen interesei jarraituz, bi fenomeno horien elementu zehatz batzuk baino ez dituzte ikusarazi nahi izan. Azken ia hiru hamarkadetan, "bake liberalaren" ikuskera nagusi bihurtu da. Hala ere, eta aldi berean, ikuskera horren aurrean, teoria kritiko desberdinek gatazka armatuaren eta bakearen errealitatearen azalpenak asko aberastu dituzte. Teoria horiek –feminismoa barne– gatazka armatuaren kontzeptua zabaldu dute eta, horrekin batera, euren sorrera, zergati, bilakaera eta ondorioen analisia ere bai. Horrek bakearen kontzeptuaren zabalkuntza ere ekarri du, herrien eta pertsonen garapena –hori ere modu zabalean ulertuta– barne bilduz.

Hori guztia kontuan izanda, testu honetan, lehenik eta behin, gatazken eta bakearen definizioen aniztasuna aztertuko dugu. Ondoren, gatazka armatuek populazioaren garapenean duten eraginean zentratuko gara, bi faktoretan sakonduz: gatazka armatuaren zergatietan, alde batetik, eta gatazka armatuek garapenarekin duten loturen inguruko analisi ekonomikoetan, bestetik. Azkenik, generoan oinarritutako botere egiturek gatazka armatuetan eta horien ondorioetan duten eraginaren inguruan jardungo gara, emakumeen garapenean duten eraginean sakonduz.

Hitz-gakoak: gatazka armatuak, bakea, garapena, generoa.

Abstract: Historically, both armed conflicts and peace have been understood in a very limited way. The hegemonic analysis and studies, following the interests of the powerful, have only looked at certain elements of these phenomena. Over the last three decades, this conception has evolved into the so-called "liberal peace". However, and at the same time, other critical theories have greatly enriched the explanations of armed conflicts and peace. These theories –including feminism– have expanded the concept of armed conflict, together with the analysis of their origins, causes, evolution and consequences. This has also led to the expansion of the concept and understanding of peace itself, in order to include the analysis of development, understood in a broad sense.

In light of all this, in this text, first of all, we will analyse the diversity of the definitions of armed conflicts and peace. Later, we will explore the impact of armed conflicts on the development of the population by exploring two factors: the causes of armed conflicts, on the one hand, and the economic analyses of the impacts of armed conflicts on development, on the other hand. Finally, we will focus on the gender-based power structures in armed conflicts in order to examine its impacts on the development of the population, in general, and of women, in particular.

Keywords: armed conflicts, peace, development, gender.

1. Sarrera

Bigarren Mundu Gerraren ostean munduaren bilakaera sozial, ekonomiko eta politikoa baldintzatu zuen Gerra Hotzak zein horren osteko eraldaketek guztiz ezaugarritu dute gaur egun gatazka armatuak, gerrak, bakea zein garapena nola ulertzen ditugun. Batez ere 1990eko hamarkadaz geroztik, gatazka armatuak, bakea, garapena zein segurtasun kontzeptuak harilkatuta garatu dira. Izan ere, segurtasunik eza edo segurtasun mehatxuak, tradizionalki, gatazka egoerekin identifikatzen baziren ere, gaur egun segurtasun gabezia zein mehatxuak ez dira, derrigor, gatazka armatu edo gerrekin lotutakoak, edo indarkeria zuzeneko testuinguruekin lotutakoak. Horrek, halaber, bakearen kontzeptua birdefinitzeko beharra uzten du agerian. Gatazka armatu eta gerren aurrean, tradizionalki, bakea elkarren aurka kokatzen diren alderdien arteko indarkeria zuzenaren amaierarekin identifikatu da. Azken hamarkadetan, ordea, ikuspuntu kritikoetatik agerian jarri da indarkeria ez dela soilik borrokan dauden aktoreekin zuzenean erlazionatutakoa. Gerra edo gatazka armatuetan baino, egunerokotasunean ematen diren mehatxu eta indarkeriak identifikatzen dira (pobrezia, norbere bizilekutik ihes egiteko beharra, izurriteak, identitate minoritario edo sexu-identitate desberdinen aurkako bortizkeria anitzak, eta abar...).

Bada, azken hamarkadetan, azpigarapena identifikatu da gatazka armatuei lotutako mehatxu garrantzitsuentzat, eta, beraz, gatazka zein azpi garapen egoerak baretzea eta horiei amaiera ematea mundu mailako segurtasun politiken helburu nagusitako bat bihurtu da. Testuinguru horretan, gizarteak euren osotasunean eraldatzeko joera nagusitu da 1990eko hamarkadaz geroztik. Dena den, gatazka armatuen eta bakearen interpretazio hegemonikoak, bai tradizionalak, bai gaur egungoak, guztiz politikoak dira. Kontzeptu horien azterketak eta definizioak ez dira neutroak (interes partikular batzuk daude horien atzean), ezta unibokoak (esanahi alternatiboak egon badaude) edota agian zentzudunenak ere ez. Gatazka armatuen, bakearen eta segurtasunaren definizio zehatz horietatik abiatuta martxan jarritako nazioarteko politikak interes jakin batzuei erantzuten diete, eta ideologia politiko (liberala) eta ekonomiko (neoliberal) zehatz batean oinarritzen dira; bake eraikuntzan aktore hegemonikoak diren estatu boteretsuek, hala nola Nazioarteko Finantza Erakundeek eta Nazio Batuen Erakundeak (NBE), enpresa pribatuek eta abar defendatzen dituzten "bake liberalaren" interesak, hain zuzen ere. Horrek inplikazio zehatzak ditu: agenda Iparraldean kokatzen da, eta Hegoaldean garatzen da gehienbat. Horrek islatzen du garapen bidean dauden Hegoaldeko herrialdeetako arazoak Iparraldeko herrialdeen esku-hartze, finantzazio eta demokratizazioaren bitartez konpondu daitezkeenaren –edota, konpondu beharko liratekeenaren– ideia, ardatz liberaletan oinarrituta.

1990eko hamarkadaz geroztik, mundu mailan indarra hartu duen ikuskera (neo)liberal horrek eragin zuzena izan du ez bakarrik gatazka armatuak zein bakea nola ulertzen direnaren inguruan, baita, halaber, garapena nola ulertzen denaren inguruan ere. Dena den, ikuspuntu kritikoetatik, gatazken eta gerren, bakearen zein garapenaren inguruko kontzeptualizazio kritikoagoak egin dira, definizio horietan sakonduz eta haratago joanez.

Esku artean duzun lan honetan gatazken, bakearen zein garapenaren definizio nagusien ezaugarri orokorrenak eta euren arteko loturak agertuko ditugu. Zer dira gatazkek, eta zein dira euren ezaugarri nagusienak? Zein dira gatazka armatuek eta gerrek dituzten desberdintasunak? Zer da, orduan, bakea? Eta, nola erlazionatzen da garapenarekin?

Oinarritzko galdera horiei erantzun nahian, lehen atalean gatazken eta bakearen definizioa, ezaugarriak eta eraldaketak aztertuko ditugu, Gerra Hotzaren amaierak kontzeptu hauek ulermenean izandako eraginetik abiatuta. Ondoren, gatazka armatuek populazioaren garapenean duten eraginean sakonduko dugu, funtsezkotzat identifikatzen ditugun bi faktoretan sakonduz: gatazka armatuen zergatiak edo kausak, batetik, eta gatazka armatuen inguruko eta horiek garapenarekin duten loturen inguruko analisi ekonomikoak, bestetik. Azkenik, laugarren atalean, generoan oinarritutako botere egiturek gatazka armatuetan eta horien ondorioetan duten eraginaren inguruan jardungo gara, emakumeen garapenean duten eraginean sakonduz.

2. Gatazken eta bakearen definizio anitzak

2.1. Gatazka armatuak: ezaugarriak eta eraldaketa

Kasu askotan, gatazka, gatazka armatu eta gerren arteko desberdintasunak bereizteko zailak diren arren, badira oinarritzko alde batzuk. Gatazkatzat identifikatzen dira alderdi edo aktore desberdinen arteko bateraezintasunak, horiek nolana hikoak izanda ere. Dena den, gatazka edo gatazka-egoera batek ez du zertan indarkeriazkoa izan behar, eta eztabaidan, negoziazioan zein bitartekotzan oinarritutako irtenbideak izan ditzake. Indarkeriazko gatazkek edo gatazka armatuak entzunagoak dira nazioartean, non alderdi desberdinek irtenbide bezala edo bakoitzak bere interesen defentsan indarkeria erabiltzen duten. Bi alderdi edo gehiagoren arteko gatazka horren desadostasun mailarik gorenena suposatzen du gerrak, indarkeriazko estrategiak ardatz izanik. Oro har, gatazken inguruan hitz egiten denean, gatazka armatuen inguruan hitz egiten da¹.

Bada, ordea, adituek gatazka armatu eta gerraren arteko bereizketa egiteko erabiltzen duten biderik: *Uppsala Conflict Data Program*-en arabera, adibidez, gatazka armatu bat da gobernu batekin (sistema politiko mota, horren aldaketa eta eraisketa), lurralde batekin (bere gaineko kontrola, sezesioa edo autonomia) edo biek in erlazionatutako bateraezintasuna, non alderdi bat gutxienez gobernu edo Estatu izango den, eta alderdi desberdinen arteko indarraren erabilerak edo borroka armatuak urte batean 25 hildako eragiten dituen (Themner y Wallenstein, 2014: 541). Definizio hori abiapuntutzat hartuta, eta gatazka armatuaren intentsitatea (borrokak eragindako hildakoen kopurua) kontutan hartuta, "gatazka armatu txikiago" eta gerren artean bereizten da. "Gatazka armatu txikiagoek" 25 eta 1.000 hildako eragiten dituzte borrokan urteko, eta gerrek gutxienez 1.000 hildako baino gehiago eragiten dituzte borrokan urteko (*Ibidem*: 553).

Definizio orokor horiek abiaburu gisa hartuz, gatazka armatu edo/eta gerra mota desberdinak identifikatu daitezke nazioartean, euren tipologiaren arabera. Kasu honetan, gatazka armatuen inguruan egin den sailkapen orokorra da Estatu arteko, hau da, nazioarteko, eta Estatu baitako gatazken arteko banaketa. Dena den, identifikazio zabal hori sakonagoa da egun, eta gatazka armatu mota gehiago identifikatzen ditu. Adibidez, *Correlates of War* proiektuak lau gatazka armatu mota identifikatzen dituen tipologiaren sailkapena egiten du. Horrela, Estatu desberdinen arteko gerrak (*inter-state wars*); Estatuez gaindikoak (*extra-state wars*), gatazka armatuan parte hartzen duten aktoreen Estatutik kanpo ematen direnak; Estatu baitako gerrak (*intra-state wars*), Estatu baitan ematen direnak; eta gerra ez-estatalak edo Estaturik gabekoak (*non-state wars*) identifikatzen ditu, Estatuak ez diren aktoreen artekoak eta Estatu baten baitan ez dagoen lurralde batean, edo Estatu arteko mugetan ematen direnak (Sarkees, 2014: 239). Lau gatazka armatu talde nagusi orokor horietatik hasita, bederatzigatazka mota zehatz identifikatzen dira:

1 Kontzeptuen ulermenaren ezaugarri nagusienetako bat da gatazka eta gerra kontzeptuak, halaber, eta, gehien-gehienetan, indarkeriak ezaugarritutako prozesuekin erlazionatzen direla. Gatazkek zentzu negatiboan identifikatzen dira, eta ez da ikusten gatazkek indarkeriarik ezak ezaugarritutakoak ere izan daitezkeela. Argitalpen honen helburua ez bada ere, beharrezko deritzogu aipatzeari indarkeriarik ezaren bitartez bideratutako gatazkek ere badirela geroz eta gehiago, zeinak indarkeriarik ezaren bitartez gatazka egoera areagotzea bilatzen duten, ahalik eta kalte gutxien izango dituen irtenbideak bilatzeko helburuarekin (Ikusi, adibidez: Mujika Chao, 2017a).

1. Taula: Gerren tipologia eguneratua	
Estatuen arteko gerrak	
Estatuz gaindiko gerrak	Koloniekiko gatazka kolonialak Estatu inperial eta ez-Estatuen artekoak
Estatu barruko gerrak	Gerra zibilak Aginte zentralaz jabetzeko Tokiko aferen inguruan Eskualde mailako barne-gatazkek Komunitateen artekoak
Gerra ez Estatalak	Lurralde ez-estatal batean Estatuaren mugez gaindikoak

Iturria: *Correlates of War* (Sarkees, 2014: 239)-tik moldatua.


Kontzeptu desberdin horien guztien inguruko zehaztasunak agertu ostean, testu honetan, aurrerantzean, "gatazka armatu" kontzeptua zergatik erabiliko dugun ("gerra" kontzeptua baino) azaltzea ezinbestekoa da. Beste hainbat egileren artean, Donna Pankhurst-ek (2004: 9) azaltzen duen moduan, "gatazka armatu" kontzeptua erabiltzen da gaur egungo eszenatoki belikoen konplexutasuna hobeto islatzen duelako. Geroago aztertuko dugun moduan, indarkeria aldizka baina edonon dago, mota desberdinetakoa da gainera, aktoreak anitzak eta heterogeneoak dira, eta biktimak, batez ere, zibilak dira.

Gatazken definizio zein tipologiak aldakorrak izan dira bereziki azken hamarkadetan zehar, batez ere Gerra Hotzaren amaieraz geroztik. Guda Hotza ezaugarritu zuen testuinguru bipolarrak bi ezaugarri nagusi zituen: batetik, gatazka ugari ezkutuan geratu ziren, batez ere superpotentzia baten edo bestearen eraginpean, Europa Ekialdean eta Asia erdialdean kasu (Armenia, Azerbaijan zein Balkanak, adibidez). Bestetik, gatazken lurrunkortasuna areagotu zen, eta horiek areagotu ziren garapen bidean zeuden herrialdeetan (Afrikako Adarrean zein Ertamerikan, besteak beste). Ekialdearen eta Mendebaldearen arteko liskar ideologikotzat hartzen ziren gatazka armatu horiek, eta mundu mailako gatazka bipolarrarekin zein superpotentziekin zuzenean lotutakotzat identifikatzen ziren (Lederach, 1997).

Gerra Hotzaren amaierak, ordea, eraldaketa nabarmenak ekarri zituen nazioartean. Alde batetik, ordura arte indarrean zegoen ordena bipolarraren eraiketaren ondorioengatik; bestetik, bakearen eta segurtasunaren ulermenean, zein gerra eta gatazka armatuen eta horien dinamika eta ondorioetan, gerren aurreko erantzun globalean, edota horien osteko garapen prozesuetan ere eragin zuzena izan zuelako.

Gatazka armatuei dagokienean, nazioarteko ordena bipolarraren amaierak agerian jarri zituen ordura arte ageri-agerikoak izan ez ziren hainbat ezaugarri. Ordura arteko gatazka armatu tradizionalekin alderatuta, hainbat desberdintasun identifikatu zituzten adituek. Jean Paul Lederach-en arabera (1997), bi ezaugarri orokor nabarmendu zituzten Gerra Hotzaren osteko gatazka armatu garaikide hauek: batetik, gatazken gehiengo barne gatazkek ziren, Estatuen mugez baitan ematen zirenak, lurralde edo talde zehatzen autogobernu edo independentzia lortu nahi zutenak zein gobernu motarekin zerikusia zutenak; eta, bestalde, herrialde pobre edo garapen bidean zeuden herrialdeetan ematen ziren geroz eta gehiago. Gatazka armatuak, gehiengo batean, Afrikan eta Asian kokatzen ziren. 2013rako, adibidez, 33 gatazka armatuetatik 26 Afrikan (13) eta Asian (13) kokatzen ziren. Horietatik, soilik zazpi identifikatu ziren gerratzat: Sirian, Afganistanen, Irak, Pakistanen, Nigerian, Hego Sudanen eta Kongoko Errepublika Demokratikoan jazotakoak (Themnér eta Wallenstein, 2014: 543-545).


1. Irudia: Gatazka armatuak 1946 eta 2014 artean, erregioaren arabera



Iturria: UCPD. [<https://www.pcr.uu.se/research/ucdp/charts-graphs-and-maps/>]

Gainera, Bigarren Mundu Gerraz geroztik, Estatuon baitako gatazka armatuak edo barne gatazka armatuak, hau da, gatazka armatu zibilak, ugarienak izan dira, nazioarteko edo Estatuon arteko gatazka armatu tradizionalen aldean. 1946 eta 2011 artean, adibidez, 102 herrialde egon ziren gatazka armatu zibiletan murgilduta. Gainera, gerra zibil aktiboen kantitatea areagotu egin zen nabarmen 1989 eta 1992 artean, Gerra Hotzaren amaieraren hurrengo urteetan. Ondorengo grafikoak joera horren nondik norakoak erakusten ditu: 1946tik nazioarteko gatazka armatuak (horiz) geroz eta gutxiago dira, batez ere azken hamarkadetan, eta geroz eta gehiago, berriz, gatazka armatu zibilak edo Estatuon baitakoak (gorriz).

2. Irudia: Gatazka armatuak 1946 eta 2014 artean, gatazka armatu motaren arabera



Iturria: UCPD. [<https://www.pcr.uu.se/research/ucdp/charts-graphs-and-maps/>]

Gerra Hotzaren amaiera eta globalizazio neoliberalaren gorakadak nabarmen ezaugarritu zituen gatazka armatuen dinamikak eta ezaugarriak. Gerra Hotzaren osteko gatazka armatuek ez zuten izaera ideologikoa ardatz; aldatzen ari ziren, ez bakarrik Estatuon mugen baitan edo horietatik kanpo garatzen ari zirelako edo euren kokapen geografikoari zegokionean, baita euren intentsitateari, iraupenari zein erabiltzen zituzten taktikei zegokionean ere, besteak beste. Are gehiago: interdependentziak ardatz hartzen zituzten hainbat ikuspuntu agerian utzi zuten nazioarteko erakundeek, aktore transnazional desberdinek zein nazioarteko ordena ekonomikoak gatazka armatuetan zuten eragin zuzena, erronka berriak azaleratuz (Wallensteen, 2014: 13).

1990eko eta 2000ko hamarkadetan, gatazka eredu berri baten azaleratzea nabaritzen hasi zen, ordura arteko nazioarteko harremanen pentsamendu teorikoak islatzen ez zuena (Butler, 2009: 53). Gatazka armatu eta gerren inguruko birdefinizio prozesu bat hasi zen "gerra berrien" kontzeptuaren eskutik, zeinak mundu garaikidearekin akordeagoa den gatazka armatuen eta gerren analisi berri bat garatzeko beharrari erantzun nahi zion (Kaldor, 1999). Ordura arte "barne gatazkak" edo "guda txikiak" kontzeptuen bitartez definitutako gatazka armatu garaikideak definizio berdinen baitan batzen hasi ziren, horiek nagusiki hiru ezaugarri komun biltzen zituztelako: sarri asko alderdiak ez ziren Estatuak, beste aktore batzuk baino, interes nazional ez gandi beste kausa batzuk bultzatuta burutzen zituzten, eta armada profesionalen gainetik beste bitarteko eta taktika batzuk ere erabiltzen zituzten (Butler, 2009: 57).

Mary Kaldor-ek (1999) kategoriatu bezala identifikatu zituen gatazka armatu edo gerra berri horiek, eta "gerra berrien" kontzeptua proposatu zuen horiek gatazka armatu tradizionaletik edo "guda zaharrekiko" bereiziz. Beretzat, guda zaharren kontzeptuak gerren ikuspegi idealizatu bati erreferentzia egiten zion, XVIII. mende amaieratik XX. mende hasiera aldera arte Europar kokatzen ziren gerrei, Estatuaren artean eta horien indar armatuen bitartez burututakoei. Aldiz, "gerra berrietan", gatazka armatuak Estatuaren baitan ematen diren arren, Estatu ez gandi aktoreek parte hartzen dute (izan enpresa militar pribatuak, gerrilla taldeak edota mafiak, besteak beste), biktima kopurua nabarmen handiagoa da eta horien gehiengoak populazio zibila da, politika identitario, etniko edota erlijiosoak dira borrokaren kausa lurraldetasunaren aldean, eta gerraren ekonomia globalizatuaren bitartez finantzatuak dira (horixe bera da gerraren helburua, ez bitartekoa).

Horrela, gatazka armatu garaikideek ezaugarri zehatzak garatu dituzte Gerra Hotzaren ostean, nazioarteko politika ezaugarritu duten dinamiken ondorioz. Aipatu ditugun eraldaketan testuinguruan, Karlos Pérez de Armiñok (2007: 316-320) zazpi ezaugarri nagusi identifikatzen ditu guda zibil garaikideetan:

- a) Estatuaren baitako gatazkak izanagatik horien mugetatik haratagoko inplikazioak ere badituzte, hainbat arrazoi tarteko: globalizazioaren eraginpean garatzen dira, horien sakoneko arrazoiak ere testuinguru horrekin lotuta daude (Iparralde eta Hegoaldearen arteko banaketaren areagotzea edo doiketa estrukturalerako neurri neoliberalak, adibidez), parte hartzen duten aktoreak ere Estatuaren mugetatik haratagokoak dira (ondoko Estatuaren armadak, arma trafikorako sareak, multinazionalak, eta abar), eta horien ondorioak ere Estatuaren mugetatik haratago pairatzen dira (behartutako lekualdatzeak edota migrazioak, ihesaldiak, epidemiak, talde terroristen zabalkundea, eta abar).
- b) Geografikoki Hegoalde globalean kokatzen dira².
- c) Helburu eta motibazio desberdinak dituzte: balio unibertsal eta faktore ideologikoen (askapen nazionala edota justizia soziala, adibidez) pisu gutxiago dute eta faktore identitarioek, berriz, pisu handiagoa.
- d) Parte hartzen duten aktoreak areagotu egin dira: gatazka armatu horiek oso deszentralizatuta daude, eta elkarren aurka borrokatzen duten armada edo taldeez gain, aktore gehiagok parte hartzen dute: gerrako jaunak (*warlords*), talde kriminalak, mertzenarioak eta abar. Aktoreen aniztasun horrek nabarmen zailtzen du borrokalari eta populazio zibilaren arteko banaketa.
- e) Borrokarako metodo berriak dituzte: borroka zuzena saihestu egiten da sarri, herritarren kontrolaren bitartez lurraldeak eskuratuz. Ez dago borrokarako espazio zehatzik, eta, gehienetan, arma motzak erabiltzen dira. Herritarren lekualdatzea bilatzen dute, eta krisi humanitario larriak sorrarazten dituzte.
- f) Gatazka armatuak eurak aberastasunerako bitarteko dira, batez ere krisi ekonomikoak zein pobreziak astindutako lurraldeetan, ez soilik bizimodua irabazi nahi duten gazte askorentzat, eliteentzat eta gerrako jaunentzat ere bai. "Gerraren ekonomia politikoa" (Duffield, 2001) areagotu du horrek.
- g) Denboran iraunkortu egiten dira, ez baitute hasiera eta amaiera epe zehatzik, eta horrek "kroniko" bihurtzen du gatazka armatua.

2 Ikusi 1. irudia.

Tsjeard Bouta eta Georg Frerks-ek honela biltzen dituzte nazioarteko edo Estatu arteko gatazka armatuen eta Estatuaren baitako gatazka armatu edo gerra zibilen arteko ezaugarri eta desberdintasunak:

2. Taula: Estatu arteko eta Estatuaren baitako gatazka armatuen ezaugarriak	
Nazioarteko gerrak	Gerra zibilak
Estatuaren arteko gatazkek	Borroka "domestikoak"
Armaden artekoak	Alderdi asko eta behin-behineko aliantzak (izaera etniko edo erlijiosoa duten taldeak, erregio mailakoak, mugimendu separatistak, talde militarrek eta abar)
Populazio zibilarekiko errespetua	Biktimen % 90 populazio zibila da
Gerra zelai definitua	Gerra zelai definiturik ez: "bake zonaldeak" eta "borroka zonaldeak" nahasten dira
Nazioarteko zuzenbidea oinarri	Nazioarteko zuzenbidea ez da betetzen
Hasiera eta amaiera zehatzak	Ezkutuko gatazka edo bake hauskor egoera jarraia, hasiera eta amaiera zehatzik gabe (" <i>no war, no peace</i> " testuinguruak)
Erlatiboki iraupen motza	Luzeak, iraunkorrak eta oso biziak
Gerra metodoak Genevako Nazioarteko Giza Eskubideen Itunean oinarrituta	Goseteak, garbiketa etnikoa, bortxaketak, genozidioak, azpiegituren suntsiketa, eta abar.
Gatazkaren jatorri eta helburuak, garbiak	Gatazkaren jatorri eta helburuak, aldakorrek
NBEko arautegia errespetatzen da: gerra debekatuta dago, erasoen aurkako bidezko defentsa (eta beste salbuespenak) izan ezik	Arautegirik ez da aplikatzen

Iturria: Bouta eta Frerks-etik (2001: 9) moldatua.

Dena den, "gerra berrien" kontzeptuak eztabaida ere sustatu du (zirion, 2017a: 355-357). Ikuspegi kritikoagoetatik argudiatzen da gatazka armatu garaikide horiei egotzi zaizkien ezaugarriak ez direla hain berriak, eta aurretik ere ematen zirela. 2001eko irailaren 11z (I11) geroztik, gatazka armatuen eta gerren inguruko kontzeptualizazioa are nahasiagoa da. Zenbait adituren esanetan testuingurua bera eraldatu delako eta "guda zibil global" baten testuinguruan gaudelako, zeinaren baitan jada ez dauden gehiago bakearekin erlazionatutako Iparraldeko demokrazia kapitalistak eta gatazkekin erlazionatutako Hegoaldeko bestelako ordenak. Bi zonalde edo eredu horiek bakar batean fusionatu dira, guda zibil global baten baitan (Duffield, 2001)³.

3 Ikusi Mujika Chao (2017b).

2.2. Bakearen definizio tradizionaletik garapenerantz

Gatazka armatuen definizioarekin gertatzen den moduan, bakearen definizioa ere politikoa da. Ideia simple hori garrantzitsua da, bakeari –eta baita gatazka armatuei edo segurtasunari– emandako interpretazio zehatzek eta interesatuek bakea eraikitzeko politika batzuk –eta ez beste batzuk– ekarriko dituztelako (zirion, 2017b, 2018). Bakearen gaur egungo interpretazio nagusia estatu-zentrikoa (Estatuak dira erreferentzia), militarra (diagnostikoak, aktoreak, irtenbideak eta baliabidea militarrek dira), negatiboa (gatazka armaturik eza gisa ulertzen da) eta kontserbadorea da. Ondoren, ezaugarri horiek guztiak modu kritikoan aztertuko ditugu, eta alternatibak ere proposatuko ditugu.

Lehenik eta behin, historian zehar nagusi izan den bakearen kontzeptuak Estatuak izan du helburu beti. Beraz, lehentasunak, besteak beste, Estatuaren aurkako indarkeriari amaiera ematea, subiranotasuna mantentzea eta lurraldea eta biztanleriaren gaineko kontrola bermatzea izan dira. I11ko atentatuen ostean, Ameriketako Estatu Batuek (AEB) martxan ipinitako “terrorismoaren aurkako gerrak” dinamika hori indartu egin du, bakea eraikitzea (*peacebuilding*) “Estatu eraikitzearekin” (*statebuilding*) identifikatuz. Estatuak sendotzeko prozesu horren helburu nagusien artean, estatu-erakundeak sendotzea (demokrazia liberala, alderdi anitzeko hauteskundeak, erreforma konstituzionalak) eta epe laburrean egoera egonkortzea eta segurtasuna lortzea (segurtasun sektorearen erreforma; borrokalarien armagabetze, desmobilizazio eta gizarteratze prozesuak) izan dira. Asmoa, Hegoalde globaleko “porrot egin duten Estatuak” –beti mendebaldeko Estatu boteretsuen ustetan– Estatu egonkor, legitimo eta eraginkor bihurtzea izan da.


Bakearen ikuspegi estatu-zentriko hori gatazkek eta bakeak Estatuengan duten eraginarekin kezkatuta dago, eta ez hainbeste populazioarekin. Estatuaren interesak –eliteen, batez ere, gizonezkoen interesak– biztanleriaren interesen gainetik daude. Ideia hori oinarri hartuta, gatazka armatu baten ondoren, bake akordio bat lortzen denean, zilegi da galdetzea: noren gatazka armatua da konpondu den gatazka armatu hori? Noren bakea da lortu den bake hori? Jende askorentzat –batez ere emakumezkoentzat–, gatazka armatuen bukaera ez da bakearen etorrera. Gatazka armatu ondoko testuinguru askotan, indarkeria fisikoaren maila gatazka armatu garaikoa baino handiagoa da. Halaber, maiz indar armatu nazionalak mehatxu bilakatzen dira euren biztanleria zibilaren kontra, batez ere emakumeen kontra. Izan ere, botere-marjinetan daudenek gero eta segurtasun gutxiago sentitu ahal dute, nahiz eta Estatuak “seguruagoak” bihurtu (Ibídem, 2018: 37).

Bigarrenik, historian zehar bakearen kontzeptuak izaera militarra izan du. Bake eraikuntzaren eredu hegemonikoak aktore, diagnostiko, gogoeta eta baliabide eta irtenbide militarretan oinarritu izan dira. I11ren osteko egonkortasuna eta segurtasuna lortzeko premiak dinamika hori areagotu baino ez du egin. Gatazka armatuen interpretazioa ikuspegi militar batetik egiten da (aktore armatuak, liskarrak, mehatxu militarrek aztertzen dira); aktore pribilegiatuak militarrek dira (armada nazionalak, talde armatu irregularrak, matxinoak, bakea mantentzeko nazioarteko operazioak); proposatutako bitarteko eta irtenbideak militarrek dira (bakerako akordio formalak, segurtasun sektorearen erreforma, borrokalarien armagabetze, desmobilizazio eta gizarteratze prozesuak); eta erabilitako baliabideak (materialak, giza baliabideak eta ekonomikoak) batez ere militarrek dira.

Hirugarrenik, bakea gatazka armaturik ezarekin erlazionatzen duen identifikazioa oso ikuspegi mugatua da. Interpretazio politiko horrek gatazka eta gatazka armatu ondoko testuinguruetan gertatzen diren beste hainbat indarkeria era ezkutatzen ditu, eta, horren ondorioz, bake eraikuntzaren agendaren lehentasunetatik kanpo uzten ditu.

Johan Galtung-ek (1969) “bake negatibo” kontzeptua identifikatu zuen zuzeneko indarkeriarik ezarekin, hau da, indarkeria fisikoa, ikusgarriagoa, agerikoa ez dagoenean. Hala ere, aldi berean, beste indarkeria mota batzuk ere identifikatu zituen (“indarkeria estrukturala” eta “indarkeria kulturala”), hain ikusgarriak ez direnak, eta bake interpretazio zabalagoak sortzen laguntzen dutenak.

3. Irdia: Indarkeriaren triangela



Iturria: Galtung (1998: 15).

Alde batetik, indarkeria estrukturala dago, pobrezia, zapalkuntza eta desberdintasuna sortzen dituzten egitura sozial, ekonomiko eta politikoetatik datorrena. Indarkeria estrukturalarekin amaitzeko justizia sozial handiagoa eta botere eta baliabideen banaketa sortuko lituzke, hau da, "bake positiboa" ekarriko luke. Bestalde, kultur-indarkeriari dagokionez, indarkeria estrukturala legitimatzen duten eta indarkeria zuzena eragiten duten kultur-balioez eta ereduez (hizkuntza, ideologia, erlijioa, banderak, himnoak, diskurtsoak eta abar) ari gara. Kultur-indarkeria hori desagerrarazteko, "bake-kultura" sustatzea beharrezkoa da. Azken bi kontzeptu horiek (bake positiboa eta bake-kultura) gaur egun hegemonikoa den bakearen esanahia baino askoz zabalagoak diren interpretazioak eskaintzen dituzte, zentzu askotan giza garapenaren kontzeptutik baino askoz hurbilago daudenak (Guridi, 2017: 15-16). Aldi berean, bake positiboa eta bake-kultura lortzeko gaur egun abian daudenen aldean bestelako politikak behar ditugu.

Era berean, feministek salatu dute gatazka armatuetan nazio mailako eta nazioarteko agintariak gizonen segurtasun fisikoa eragiten duten mehatxuei emakumezkoen zuzendutako bako bako baino arreta gehiago eskaini dietela historian zehar (Kuehnast et al., 2011: 13). Izan ere, urteetan zehar Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbideak eta bakea sustatzeko politikak ez diete garrantzi handirik eman gatazka armatuen testuinguruetan gertatzen ziren giza eskubideen urraketa batzuei –batez ere emakumeekin zerikusirik zutenak, besteak beste, sexu-indarkeria, sexu-esklabutza edo behartutako haurdunaldiak–. Hau da, neurri handi batean, bakea eta segurtasunaren inguruko mehatxuak gizonen definitu dituzte, gizonen aurkako mehatxuak zeintzuk diren kontuan izanda.

Eta, azkenik, laugarrenik, gaur egungo bake eraikuntzarako politika hegemonikoak, oro har, kontserbadoreak dira, ez egiazki eraldatzaileak. Euren lehentasunak egonkortasuna eta segurtasuna diren heinean, arreta jartzen diete Estatuko erakundeei, tokiko eliteei eta elkarri aurre egiten dieten alderdiei. Egitura eta eragile horiek dira interesatzen zaizkien "benetako protagonistak", kontuan izanda politika horien lehentasunak: boterea, kontrola eta segurtasuna. Beraz, Estatu eta gobernuburuak, jeneralak, talde armatuetako liderrak, elite ekonomikoak, lider erlijioso eta sozialak (gehienbat gizonak) pribilegiatzen dituzten heinean zapaldutako eta baztertutako jendea, herriak eta gatazken biktimak, alde batera uzten dituzte. Gainera, bere politikak gatazka armatuen epe laburreko arriskuak eta ondorio negatiboak arintzera zuzenduta daude, gatazken sustrai sakonak eta zergatiak konpontzera baino. Beraz, zortedun izanda bake formal edo "birtuala" baino ez dute lortzen, azalekoa, iraunkorra ez dena eta bertako biztanleen bizi-baldintzak hobetzen ez dituen.

Gainera, hegemonikoa den bake eraikuntza liberalak nahitaez alboratzen du botere harremanen analisia. Testuinguru gatazkatsuetan botere harremanei aurre egiteak ezegonkortasuna eta tentsio gehiago sor ditzaketela ulertzen du. Ez du nahi *statu quo*a kolokan ipini. Horrela, ez dute kontuan hartzen testuinguru guztietan dauden desberdintasun sozialek eta menpekotasun harremanek ere tentsioak eta kexak sortzen dituztela eta gatazka armatuen jatorria ere izaten direla askotan. Hala ere, gaur egungo bake eraikuntza

politikek esparru horietan ez sartzea erabakitzen dute oro har. Horrela, desberdintasun sozialen eta menpekotasun harremanen kontra egiten ez duten heinean, horiek guztiak erreproduzitu eta areagotu egiten dituzte sarritan.

Desberdintasun eta botere harreman horien artean daude, adibidez, bake eraikuntzaren izaera bertikala (*top-down*, goitik beherako politikak, eliteetatik biztanleriara); presente dauden identitate desberdinen (naziotasuna, arraza, klasea, erlijioa, sexu-orientazioa eta abar) arteko desberdintasunak eta hierarkiak; desberdintasun ekonomikoak, pobrezia eta tentsio sozialen areagotzea, politika ekonomiko neoliberalen ondorioz; bake eraikuntzaren izaera antropozentrikoa, osotasun interkonektatua eta interdependentea ulertzen ez duena eta gizakiak naturaren gainetik kokatzen dituen (Jubeto eta Larrañaga, 2017: 9-10); eta, jakina, gizonen emakumeen gaineko zapalkuntza.

Bake eraikuntza garaia tentsioak arintzeko eta gatazka armatuen zergati estrukturalak eraldatzeko aukera da, epe luzerako bake iraunkorra sustatzeko. Beraz, bake politiken oinarri politiko eta ekonomikoaren analisi kritikoa beharrezkoa da, martxan ipiniko diren testuinguruaren azterketaz gain. Benetako bakea eraikitzea ez da posible botere-harremanak eta egiturazko desberdintasunak zalantzan jarri eta eraldatu gabe.

3. Gatazka armatuak eta horien eragina garapenean

3.1. Gatazka armatuen zergatien aniztasuna

Gerra Hotzaren osteko gatazka armatuen zergatiei buruzko azalpen ohikoenak hainbat modutan aztertu dira literaturan, baina azterketa gehienek hiru talde nagusitan sailkatu ohi dituzte zergati horiek. Alde batetik, identitatearen inguruko arrazoiak daude, hau da, giza taldeen nortasun desberdinekin zerikusirik dutenak, hala nola erlijioa, nazionalitatea edo etnia. Bestetik, arrazoi politikoak daude, batez ere lehendik dagoen erregimen politikoaren izaeraren aldaketaren ingurukoak eta "porrot egin duten Estatuak" (*failed states*) diskurtsoa, hau da, printzipioz haien burua gobernatzeko gai ez diren Estatuak erreferentzia egiten dietenak. Eta, azkenik, arrazoi ekonomikoak daude, hau da, pobrezia, desberdintasun ekonomikoak, baliabide naturalen kontrola edota globalizazio ekonomiko neoliberalaren eragina, gatazka armatuetan kontuan hartzen dituztenak.

Atal honetan, lehenengo bi zergati motak (identitateari eta politikari lotuta daudenak) aztertuko ditugu. Hirugarren zergati mota (ekonomikoak) hurrengo azpiatalean garatuko dugu sakontasunez. Garrantzitsua da, halaber, kontuan izatea hiru gatazka zergati horiek, Gerra Hotzaren amaieratik une oro presente izan diren arren, ...bakoitza garai desberdinetan nagusitu izan dela literaturan gaur egungo... gatazka armatuak azaltzeko. Hasiera batean, 1990eko hamarkadaren hasieran identitateak zergati nagusiak izan ziren, batez ere Ruandako 1994ko genozidioaren ondoren. Hamarkada horren bigarren zatian, ordea, gatazken arrazoi ekonomikoek protagonismoa eskuratu zuten, eta, hala, azken urteetako identitate azalpenak gainditu ziren. Azkenik, 11ren ostean eta, batez ere, AEBek hasitako "terrorismoaren aurkako gerraren" esparruan, porrot egin duten Estatuak diskurtsoa hegemoniko bihurtu zen.

Gatazka armatuen identitatearen inguruko zergatiei dagokienez, herrialdeetako gizarte eta kultura egitura askotarikoa, batez ere desberdintasun etnikoak eta erlijiosoak, erabili izan dira gatazka armatuen sorrera azaltzeko. Pertsona orok gainjarritako identitate desberdinak ditu, erlijioa, etnia, nazioa, arraza, generoa, sexu-orientazioa eta abarrekin zerikusirik dutenak. Beraz, identitate banaketak daude gizarte guztietan. Mary Kaldor-ek (1999: 109) esaten duenaren arabera, gizarte jakin batean dauden identitateen heterogeneotasun horrek bazterketa mota desberdinak sor ditzake.

Literaturaren zati batek defendatzen du Gerra Hotzaren amaieratik aurrera aktore armatuak giza taldeetako "oinarizko nortasun" baten bat (etnia, klan, erlijioa, nazioa eta abar...) oinarri hartuta egin dutela gerra. Interpretazio horren arabera, identitate desberdintasunek, Gerra Hotzaren testuinguruan erregimen autoritarioetan isilaraziak egon ostean, identitate-tentsioak sortu zituzten 1990eko hamarkadan. Beraz, indarkeria kolektiboak gizarte jakin bateko giza taldeen arteko desberdintasunak (eta banaketak) aktibatzen eta indartzen lituzke, giza talde batek identitate horietako bat hautatzean beste giza talde baten identitatearen aurka eginez.

Hala ere, identitateak bakarrik nekez uler daitezke gaur egungo gatazka armatuen zergati gisa. Bai kolonizazioan, bai deskolonizazioan bultzatu eta politizatutako identitate desberdintasunak ere gaur egungo gatazka testuinguruetan manipulatu eta egokitu izan dira (hori egiteko interesak dituzten elite politiko edo ekonomikoen bidez, esate baterako). Literaturak eta komunikabide gehienek gatazken azalpen sinplista horiek besarkatu izanak mendebaldeko irudimen kolektiboan duen garrantzia azaltzen du. 1990eko hamarkadatik hona, gatazka armatuen eta etniaren arteko lotura estua dagoenaren ideia finkatu egin da, Afrikan batez ere, estereotipoak esaten duen moduan garbiketa etnikoak eta gatazka tribalak egunerokoak baitira. Antzeko zerbait gertatzen da Ekialde Hurbilean eta Ertainean gertatzen diren gatazkekin ere, non erlijio-azalpenak gehiengoak diren.

Bestalde, gatazken zergati politikoei dagokionez, eta AEBek 2001eko irailaren 11n izandako dorre bikien atentatuaren osteko "terrorismoaren aurkako gerraren" testuinguruan, Hegoalde globaleko Estatuaren egonkortasuna lehentasuna bihurtu zen, Iparralde globaleko segurtasuna bera bermatzeko. Prozesu horretan, "porrot egin duten Estatuak" izeneko diskurtsoa oso lagungarria izan da. Horiek beren lurraldean bertan pirateria, krimen antolatua, immigrazioa edo terrorismoaren hedapena kontrolatzeko gai ez diren Estatuak dira. Askotan, Estatuaren indar erabileraren monopolioa galdu dute, eta ez dira beren biztanleria defendatzeko gai (izan ere, askotan azken hori erasotu ere egiten dute). Horren ondorioz, mehatxu gisa identifikatzen dira, bai bere populazioarekiko, baita nazioarteko bakea eta segurtasuna bermatzeko ere, eta horrek haien kontra kanpoko esku-hartzeak egiteko aukera irekitzen du.

Erregimen politikoen izaeraz (diktadura, demokrazia edo anokrazia) eta gatazka armatuen arteko harremanaz ere asko eztabaidatu da. Kasu honetan, trantsizio prozesuak (batez ere diktaduratik demokraziara) gatazkatuak izan daitezke. Alde batetik, prozesu horien ezaugarriak direla eta, Estatuak alde aurretik zeuzkaten errepresioa erabiltzeko gaitasuna galtzen dutelako, eta, bestetik, gizarte horretan existitzen ziren kekek eta desberdintasunak azaleratzeko aukera agertzen delako.

3.2. Gatazka armatuen zergati ekonomikoak

1990eko hamarkadaren erdialdetik, gai ekonomiko desberdinen eta gatazka armatuen sorrera, garapena eta ondorioen arteko harremanak sakonki aztertu dira. Egia esan, faktore ekonomikoek goi mailako garrantzia izan dute analisi horietan. Garapenaren ideia bera ere askotan agertzen da, hori bai, garapenaren kontzeptu hegemonikoari estuki lotuta, garapen ekonomiko gisa ulertuta (Guridi, 2017: 6-8), hain zuzen ere.

Azken urteetan, literatura gehien sortu duten faktore ekonomikoen artean, alde batetik, pobrezia eta desberdintasun sozioekonomikoak daude, hau da, arestian aipatutako Galtung-en (1969) "egiturazko indarkeria" deiturikoa eragiten duten faktoreak; bestetik, baliabide naturalak; eta, azkenik, globalizazio ekonomiko neoliberala. Aldagai horietako bakoitzaren eragina gatazka armatuen sorreran eta garapenean oso eztabaidatsua da literaturan. Beraz, zaila da behin betiko ondorioak ateratzea. Hala ere, gai oso garrantzitsua dugu aurrean, kontuan hartzen badugu ikerketa horien emaitzak modu interesatuan erabili izan –eta oraindik erabiltzen– direla nazioarteko bake eraikuntza politikak ezartzeko eta justifikatzeko.

Lehenik eta behin, pobrezia eta gatazka armatuen arteko harremanak garrantzi nagusia izan du Gerra Hotzaren ondorengo gatazken azterketan. Batez ere, Munduko Bankuak eta haren ideia ekonomikoak defendatzen dituzten egileek hazkunde ekonomikoak (Barne Produktu Gordina edo diru-sarreraren gehikuntza) edo enplegu tasa altuek (batez ere gazteen artean) gatazka armatuen aukerak murrizten dituztela azpimarratu dute. Hipotesi horiek oso onartuak izan dira Munduko Bankuan, Nazioarteko Diru Funtsean, NBE-n eta Iparraldeko gobernuen artean, eta horrek eragin handia izan du aktore horiek guztiek Hegoalde globalean hartutako pobrezia aurkako eta garapena sustatzeko politiken bidez.

Hala ere, hainbat egilek zalantza jarri dute pobrezia eta gatazkaren arteko zuzeneko lotura hori. Izan ere, pobrezia berez ez du indarkeria kolektiboa sortzen. Alde batetik, munduan herrialde askok egonkorrik izaten jarraitzen dute, garapen-tasa baxuak izan arren. Bestalde, ez da zuzena gatazka armatuak Estatu txiroenetan kontzentratuta daudela esatea, horietako askok mendebaldearentzat oso estimatuak diren baliabide naturalak baitituzte (petrolio, urrea, koltana, diamanteak, egur tropikala, eta abar). Hori bai, argi

dagoena zera da: gatazka armatuek, batez ere denboran zehar luzatzen badira, testuinguruak txirotzen laguntzen dutela eta garapenaren kontra egiten dutela.

Bigarrenik, giza-talde jakin baten bizi-baldintzak pobretzea eta hondatzea, beste giza talde batekin edo batzuekin alderatuta, polarizazio soziala, tentsioak, eta, azkenik, gatazka armatuen kausa gisa ere aztertu dituzte. Kasu horietan, gainera, desberdintasun horien pertzepzio subjektiboa (erreal edo hautemana izanda ere) gatazkaren sorreraren errealitatea bera bezain garrantzitsua izan daiteke. Desberdintasun egoera horiei erreferentzia egiteko, kontzeptu ezberdinak sortu dira literaturan, esate baterako "gabezi erlatiboa" (talde baten/batzuen aberaste prozesua, beste baten/batzuen aurrean desberdintasunak handituz) edo "desoreka horizontalak" (giza talde desberdinek dituzten aukera desberdinak baliabide politiko, ekonomiko eta sozialak eskuratzeko). Bi kasuetan, sortzen (edo hautematen) diren bidegabekeriak gatazkak sor ditzakete.

Pobreziarekin gertatzen den moduan, desberdintasun ekonomikoen eta gatazka armatuen arteko harremana eztabaidagarria da. Ez da beti elkarrekin agertzen. Zer esan nahi du horrek? Desberdintasuna ez dela gatazkaren kausa zuzena (edo, gutxienez, ez dela beharrezko arrazoi edo arrazoi nahikorik); edo, agian, kontu garrantzitsuena ez dela desberdintasunak egotea, baizik eta gabezia horiek zeintzuk diren eta beren intentsitatea edo ezaugarriak nola kudeatzen diren.

Hirugarrenik, 1990eko hamarkadaren amaieran, akademiko eta profesional asko gatazka armatuetan baliabide naturalak jokatzeko zuten papera aztertzen hasi ziren. Baliabideek ez ziruditen gatazken bitartekoak, ezta elementu kolateralak ere, baizik eta gerraren benetako helburua. Garai hartan, hainbat egilek "gerraren ekonomia politikoa" kontzeptua zabaldu zuten, gatazka armatu bakoitzean parte hartzen duten aktoreek beren existentzia eta haien interesak sustatzeko garatzen duten ekonomia propioaren inguruan arreta emateko.

Gerraren ekonomia politiko horretatik abiatuta, baliabide naturalak gatazka armatuen sorrera eta garapenean duten eraginaren inguruan hainbat gai aztertu dira, hala nola, baliabide horien esportazioaren ondorioz sortutako mendekotasun ekonomikoa, tokiko eliteen onura pribatua eta ustelkeria sustatzeko arriskua edota "separatistaren pizgarria", hau da, eskualde batzuetan ager daitezkeen motibazioak euren sezesioa eskatzeko.

Berriro ere, faktore horiei buruzko iritziak ez datoz bat. Batzuen ustez, testuinguru jakin batean baliabideen existentzia gatazka sortzaile izan daiteke, baina, batez ere, gatazka armatuen betikotzean eta luzatzean du eragina. Izan ere, ekonomia politikoak gatazka zibiletan duen garrantzia nahiko onartuta dago. Horietan, funtzio desberdinak izan daitezke, besteak beste, alde batetik, lehian dauden alderdiak finantzatzea; bestetik, eliteak edo armadako buruzagiak (bai matxinoak bai armada nazionalako kideak) aberastea; eta, azkenik, beste diru-sarrerak eskuratzeko zailtasunak dituzten biztanleen sektore batzuentzat diru-sarrerak edo enplegua sortzea.

Askotan, gatazkaren eta nazioarteko merkatuan balioztatutako mineralen esparru geografikoek bat egiten dute. Ez da kasualitate hutsa. Lotura horrek "baliabideak eskuratzeko gerrak" (*resource wars*) izeneko kontzeptua sortzen lagundu du. Ikuspegi horren arabera, "gerrako jaunen" gutizia da batez ere gatazkak sortzen dituen, tokiko bezero-sareak ezarri eta biztanleria menperatzen dituen, lehengaiak legez kanpoko nazioarteko merkatuetan salduz aberasten diren bitartean.

Hobe da gutizia lehenesten duten azalpen horiekin kontuz ibiltzea. Azalpen horiek ia soilik matxino talde armatuen paperean jartzen dute arreta, beste aktore estatuen (elite nazionalak, gobernuak, armadak) eta nazioartekoen (Iparralde globaleko Estatuak, multinazionalak) erantzukizunari uko egiten. Hala ere, azken horiek ere gatazka sortzeko edota luzatzeko interesa izan ahal dute. Izan ere, baliabide naturalen argudioa faktore politikoak azterketetatik ateratzeko estrategia izan daiteke. Edo tokiko eta nazioarteko konexioa ahazteko, lehengaien azken helmuga kontuan hartu gabe: tokiko mailan modu ilegalean ustiatutako baliabide naturalak funtsezkoak dira Iparralde globaleko garapen ekonomikoarentzat, eta haien merkaturatzea nazioz gairik gabe egiten da, gaur egungo globalizazio ekonomiko neoliberalari esker. Horietan, tokiko eragileez gain, beste hainbat aktorek parte hartzen dute, eskualdeko eta nazioarteko eragileek, hain zuzen ere (horien artean, inguruko Estatuak eta nazioarteko enpresek).

Laugarrenik eta azkenik, globalizazioak gaur egungo gatazka armatuetan duen eraginaz hitz egin behar dugu. Hemen, berriro, iritzi desberdinak daude. Egile batzuen arabera –bake liberalaren teoriaren aldekoak– globalizazioak, zeharka, gatazka agertzeko arriskua gutxitzen du, irekiera politiko eta ekonomikoak sistema politikoen egonkortasuna handitzen duelako eta hazkunde ekonomikoa bultzatzen duelako, barne lasaitasuna sustatuz.

Ikuspegi horren aurrean, beste egile batzuek batez ere Mundu Bankuak eta Nazioarteko Diru Funtsak ezarritako globalizazio ekonomiko neoliberalaren politiken arriskuak analitiki kanpo uzteagatik kritikatzeko dituzte. Haien ustez, globalizazioak gatazka armatuen sorrera bultzatu dezake, esate baterako, desberdintasuna eta zaugarritasun sozioekonomikoa areagotzen dituelako; edota Estatuen oinarritzko zerbitzu publikoak eskaintzeko, garapen politikak sustatzeko edo segurtasuna bermatzeko gaitasunak ahultzen dituelako ere bai.

Sistema kapitalistak, nazioarteko izaera sakona izan arren, gatazka armatuen zergatien inguruan analisi mugatuak sustatzen ditu. Tokiko zergatiak aztertzen ditu nazioarteko sistemaren egiturazko desberdintasunekin lotu barik. Izan ere, lehen aipatu dugun moduan, gatazka horiek ezin dira ulertu eskualdeetako eta nazioarteko merkatuekin eta nazioarteko kapitalarekin duten loturarik gabe.

4. Gatazka armatuak eta generoa

4.1. Genero desberdintasunen eta gatazka armatuen arteko lotura

Gatazka armatuen azterketari buruzko literatura nagusian hutsune bat dago beste guztien gainetik: hamarkadetan zehar gatazka armatuen inguruko azterketa gehienek horiek genero ikuspuntutik fenomeno neutralak direla jo dutela (zirion, 2017a: 380 eta hurrengoak).

Genero neutraltasun hau defendatu izana ez da kasualitatea, gizonek duten boterearen beste isla bat baizik. Haien erabakiak dute historian zehar gatazka armatuen analisiaren inguruko guztia: zein gatazkei arreta eman eta zeini ez, zein dinamika eta ezaugarri zehatz aztertu, nortzuk ziren protagonistak, nortzuk aztertu behar zituzten gatazka eta nola ikertu behar zituzten eta abar. Izan ere, gatazka armatuek zein garapenak historian zehar ezaugarri komun bat baldin badute, hau balore zein ezaugarri maskulino eta heteronormatiboen erreproduzioa izan da.

Bakearen eta Segurtasun Ikasketen baitan ikuspegi feminista desberdinak izan dira ustezko izaera neutro hau zalantzan jarri dutenak, bai gatazka armatuetan bertan, bai akademian horien inguruan egin diren analisietan ere. Zentzu horretan, gatazka armatuetan gizonezkoen eta emakumezkoen artean dauden desorekak eta desberdintasun harremanak mahai gainean ipini dituzte. Aldi berean, genero desberdintasunek eta gatazka armatuek elkarren artean dituzten loturak ere aztertu dituzte; hau da, nola genero desberdintasunek gatazka armatuak eragiten dituzten eta nola, aldi berean, gatazka armatuek desberdintasuna ere eragiten duten. Ekarpen feministei esker, gaur egun jakin badakigu generoak gatazka armatuen sorreran, zergatietan, garapenean eta ondorioetan garrantzi handia duela, esparru horietan ere maskulinitate eta feminitate askotarikoak eta desberdinak sortzen eta erreproduzitzen direlako etengabe.

Generoari dagokionez, beren burua neutraltzat jotzen duten gatazka armatuen azterketek, oro har, ez dute populazioan arreta ipini, lurraldean, eragile armatuetan, irabazi edo galdu diren baliabideetan edota gatazka armatuen onuretan baizik. Beraz, genero-harremanak gatazka armatuen kausa eta ondorio moduan ikus daitezkeela alde batera utzi dute. Haien ustez, maskulinitate eta feminitateen eraikuntzari eta erreproduzioari buruzko hausnarketek ez dute inolako garrantzirik gatazka armatuak hobeto aztertu eta ulertzeko.

Jarrera hau ez da harrizkoa, kontuan hartzen badugu ikuspegi dominanteek esparru guztietan dituzten erresistentziak generoaren ikuspegia (Mazurana, 2005: 29) eta bereziki maskulinitatearen ikuspegia (zirion, 2018: 119-122) analisietan sartzeko. Ez dio axola, esate baterako: guda egiteko edo bakea sinatzeko

erabakiak hartzen dituztenak gizonak izatea; borrokalarien gehiengoa gizonak izatea; gatazkak sortzen eta/edo elikatzen dituzten petrolio, diamante edo koltanarekin batez ere aberasten direnak gizonak izatea, eta nazioarteko merkatuetan prezioak erabakitzen dituztenak gizonak izatea; sexu indarkeriaren biktimak gehienbat emakumeak izatea (eta egileak ia soilik gizonak izatea); bake eraikuntzari buruzko politikak eta erabakiak hartzen dituztenak, gatazkatik urrun dauden bulegoetan gainera, ia beti gizonak izatea, edo gatazka armatuetan zauritu fisiko eta psikologikoak zaintzen dituztenak, batez ere, emakumeak izatea.

Dudarik gabe, maskulinitateak eta militarismoak elkarrekiko harreman estua dute, eta bereziki maskulinitate militarizatuek⁴ ardura handia dute gatazka armatuen sorreran, garapenean eta luzatze prozesuetan. Abiapuntu horretatik, eta gaur egungo gatazka armatuen arrazoiei dagokienez, zilegi da galdetzea: genero dinamikak munduko indarkeriaren zergati nagusiak direla esan dezakegu? Patriarkatua eta gizonzkoen pribilegioak gatazka politiko eta sozial gehien zergati nagusia izan daitezke (baita horiek konpontzeko nazioarteko komunitatearen etengabeko porrotaren azalpena ere)?

4.2. Gatazka armatuen ondorioak populazioaren (eta batez ere) emakumeen garapenean

Gatazka armatuek, oro har, jendearen eguneroko bizimodua modu basatian suntsitzen dute. Arestian esan dugun moduan, antzinako gerra taktika tradizionalak definitu gabeko gerra-eremuetara bideratu dira, alderdiek gero eta gutxiago egiten dute elkarren kontra modu zuzenean (Kaldor, 1999: 98), arma txikiak erabiltzen dira bereziki, biztanleria helburu militar nagusienean bihurtu da eta giza eskubideen urraketak egunerokotasuna bihurtu dira (zirion, 2017a).

Izan ere, gerran hildako zibilak, lehen nahigabeko emaitza zena, gerrako taktiken helburu nagusi bihurtu dira gaur egun (Kaldor, 1999: 100), alderdi batzuen edo guztien nahitaezko estrategia bihurtu delako. Horrela izanda, sexu-indarkeria, lapurretak, derrigorrezko errekrutatzea, sexu-esklabotza, derrigorrezko desplazamendua, "lurra erraustu" estrategia, genozidioa edo garbiketa etnikoa "gerra berrien" izeneko taktikak bihurtu dira. Ez dago gerra-eremu zehatzik, "gerra osoa" deritzon egoera baino, non populazioa edozein unetan eta edozein lekutan erasotua izan daitekeen. Gaur egun, gatazka armatuen biktimen % 90 baino gehiago zeharkako biktimak dira, hau da, zuzeneko borrokarekin loturarik ez dutenak. Eta, haien artean, emakumeak eta umeak asko dira. Hala ere, nahiz eta aspalditik gatazken zeharkako biktimak zuzeneko biktimak baino askoz ere ugariagoak izan, gatazken azterketan arreta gutxiago jasotzen dute.

Populazioaren kontra egitea aldeztu aurretik pentsatutako estrategia da. "Etsai" gisa etiketatuak izan direnen erresistentzia psikologikoa eta fisikoa menderatzeko diseinatutako estrategia, hain zuzen ere. Ustiapenaren testuinguru horretan, jendea baliabide bat gehiago baino ez da. Emakumeak, gizonak, mutilak eta neskek borrokatzeko morroiak bihurtu dira, sexu eta etxeko esklaboak, eta esklaboak ere meategietan, ortuetan eta industrian (Mazurana, 2005: 32). Giza eskubideen urraketa handitzearen ondorioz, biztanleriaren masa-desplazamendua sortzen da eta, horrekin batera, krisi humanitario larriak. Izan ere, batzuetan, biztanleriaren desplazamendua eta krisi humanitarioak ez dira gerrako ondorio ezta taktika bat ere, helburua bera baizik.

Gatazka armatuen giza kostuak aztertzen dituzten ikerketek askotan borrokan egondako hildakoak baino ez dituzte kontuan hartzen. Hala ere, gatazken eragin negatiboak amaigabeak dira. Eta eragin larriak eta oso desberdinak dituzte pertsonen bizitzan, besteak beste, bizi itxaropena murriztea, sexu-indarkeria, desnutrizioa, trauma psikologikoak, desplazamendua (Estatuan bertan) edo errefuxia (Estatutik kanpo), jabetzak eta bizimodua galtzea eta abar (Kuehnast et al., 2011: 7). Ondorio horiek guztiek oso eragin negatiboa dute pertsonen ongizatean eta haien giza garapenean. Izan ere, gatazken ezaugarri horiek kontuan izanda (liskarrak edonon eta edozein momentutan, aktore armatu asko eta askotarikoak, eta gerraren taktikak gero eta bortitzagoak), gerraren kostua handiagoa da populazioarentzat, eta batez ere emakumeentzat.

4 Gatazka armatuen testuinguruaren lehenesten den maskulinitate ereduak, gerraren helburuetarako erabilgarriak diren ezaugarri jakin batzuetan oinarritzen direnak (agresibitatea eta bortizkeria, besteen menderatzea –batez ere, emakumeak eta "etsaiak"–, hierarkia, diziplina eta abar).

Arestian esan dugun moduan, generoak gatazka armatuetan sortzen den indarkeriari buruz asko azaltzen du, bai beren arrazoienguz inguruan, bai beren ondorioenguz inguruan. Gizartean pairatzen duten desberdintasun sozial eta ekonomikoak kontuan izanda, emakumeak gatazka armatuen gabezienguz eta inpaktuen aurrean zaugarriagoak dira. Adibidez, emakumeak lurra lantzeaz, merkatura joateaz edota egurra edo ura eskuratzeaz arduratzen diren neurrian, eta batez ere jarduera horiek gauzatzeko beren komunitateetatik urrundu behar badute, erasoak jasotzeko aukera handiagoak dituzte.

Dyan Mazuranak (2005: 33) azpimarratu duenez, gatazka guneetan gertatzen diren indarkeria-ekintzak sarritan egiten dira biktimen generoa kontuan hartuta, hain zuzen ere, askotan hori bereziki delako erasoenguz helburua. Adibidez, sexu-indarkeria da generoaren garrantzia hobeto islatzen duen krimena. Batetik, ia kasu guztietan egileak gizonezkoak dira; bestetik, bai emakumeenguz (gehienetan) bai gizonezkoenguz aurkakoak izan, feminitatearen eta maskulinitatearen eraikuntza bera da, hurrenez hurren, erasotu nahi dena. Alde batetik, emakumeak mindu nahi dituzte, bai fisikoki, bai euren "ohorea" eta "garbitasuna" zaintzeko mandatuaren kontra egiteko ere; bestetik, gizonezkoak mindu nahi dituzte emakumeak babesteko eta/edo beren burua babesteko mandatuaren kontra egiten; eta, azkenik, zeharka, komunitate osoa ere mindu nahi dute, bere kideak babesteko gai ez delako izan.

Hala ere, sexu-indarkeria edota indarkeria fisikoa ez dira gatazka armatuetan emakumezkoenguz aurre egiten dituzten indarkeria mota bakarrak. Borrokak beraiek baino kaltegarriagoak izan daitezkeen mehatxu ugari daude. Mehatxu eta indarkeria horiek guztiek eragin handia dute euren garapen pertsonalean, euren gaitasunetan eta euren askatasunean. Errealitate hori "indarkeriaren *continuum*" (*continuum of violence*) kontzeptuak islatu nahi du. Hau da, indarkeria prozesu konplexua, etengabekoa eta dimentsio askotarikoa da, zeinaren bidez emakumeenguz indarkeria mota desberdinei (fisikoa, estrukturala eta kulturala) arlo desberdinetan (politikoa, soziala, ekonomikoa) eta momentu desberdinetan (gatazka armatuen aurretik, bitartean eta ondoren) aurre egiten baitiete (Mazurana, 2005).

Ikuspuntu horretatik, badirudi gatazka armatua ez dela oso bestelakoa bake testuinguruarekin konparatuta. Hasiera edo amaiera zehatzik ez duen prozesu bat da, eta horien artean jarraipena egon badago, batez ere biztanleria zibilaren aurkako indarkeriaz, oro har, eta batez ere emakumezkoenguz aurkako indarkeriaz ari garenean. "Indarkeriaren *continuum*" hori dagoenez, feministek gatazka armatu-bake dikotomiaz edo bakea negatiboaren diskurtsoaz baino haratago jo behar dutela erabaki dute. Emakumeenguz aurkako indarkeria horiek guztiek, beren hedapena, izaera eta jatorriagatik, emakumeenguz gaitasunak kaltetzen dituzte (Jubeto eta Larrañaga, 2017: 16).

Horregatik, ikuspegi feministek bakearen interpretazio zabalagoak eta multidimentsionalak proposatzen dituzte, indarkeria fisikoaz gain, indarkeria estrukturala, kulturala eta ekologikoaren forma guztiak barne biltzeko. Diskurtso hegemonikoak ingurumena, ekonomia, nazio segurtasuna edo giza eskubideenguz inguruko gaiak, arazo isolatuak eta konexiorik gabekoak izango bailiran tratatzen ditu. Gatazka testuinguruetan, hala ere, mehatxu eta segurtasunik eza ez da borroken ondorioz soilik agertzen; baita familia barruko indarkeria sexistak, pobrezia, genero zapalketa, desberdintasun sozialak, ingurumenaren degradazioa eta abarren ondorioz ere.

5. Azken gogoetak

Lan honetan agertu dugun moduan, Gerra Hotzaren amaieraz geroztik erabat aldatu da gatazka armatuen zein garapenearen inguruan dugun ikuskera. Gatazka armatu eta gerrei bestelako ezaugarri batzuk egozten dizkiegu, eta horren ondorioz, baita bakeari ere. Indarkeria gatazka armatu testuingurutan ematen den ezaugarri bat baino gehiago dela identifikatuta, eta ustezko bake testuingurutan egunerokotasunean ematen den dinamika bezala ulertuta, indarkeria mota anitz identifikatzen dira, eta ondorioz, bakea modu sakonagoan, zabalagoan, inklusiboagoan eta ekitatiboagoan ere ulertu daiteke. Horrek, garapen prozesuetan ematen diren indarkeria askotarikoak identifikatzea ere ahalbidetu du.

Ez dago dudarik gatazka armatuek populazioaren garapenean duten eraginaren inguruan. Hala ere, eta hasiera batean gatazka armatuak edo gerrak, eta garapena, bata bestearen jarraian garatzen diren prozesu

desberdintzat identifikatu badaitezke ere, lan honetan agertu nahi izan dugu biek elkarren artean duten harreman estua. Garapena zentzu ekonomiko hertsian ulertzen badugu, tradizionalki egin den moduan, hauxe bera izan da azken hamarkadetan gatazka armatuen eta garapenaren arteko loturen inguruko analisisetan eragin garrantzia gehien izan duen faktorea.

Gatazka armatuen eta gerren, bakearen zein garapenaren inguruko analisisen hutsune handienetako bat, eta aldi berean, ekarpen garrantzitsuenetako bat, generozko ikuspuntutik zein ikuspuntu feministetatik egindako ekarpenak izan dira. Gatazka armatuen eta gerren, bakearen eta horren eraikuntzaren zein garapenaren eta horren ulermenaren zein kudeaketaren balizko genero neutraltasuna agerian jartzea ez da kasualitatea izan, lan honetan agertu dugun moduan. Ez du ardatz izan soilik agerian jartzea gizon eta emakumeek prozesu horiek nola modu desberdinean bizitzen dituzten eta nola gizon zein emakumeengan eragin desberdinak dituzten. Haratago, generoaren araberrako botere-harremanek gatazken sorreran zein ondorioetan duten garrantzia agerian jarri dute, baita maskulinitateak eta militarismoak elkarren artean duten harreman estuak gatazka armatuen sorreran, garapenean eta luzatzean duten eragina ere.

Urteetan zehar, gatazka armatuen analisia modu sinplistegietan interpretatu izan da. Askotan, analisiak orokorregiak dira, "gatazka bakoitza bakarra dela" ulertu gabe. Gatazkaren arrazoi eta dinamika endogenoak bilatzen dira batez ere (tokikoak eta/edo nazionalak) eta exogenoak (eskualdekoak eta/edo nazioartekoak) arbuiatzen dira. Ikuspuntu bakar batekin (diziplina bakar batetik) egiten dira hurbilketak askotan, ikuspuntu anitzeko azterketetatik hurbildu baino. Labur esanda, fenomeno historiko, konplexu eta anitzak ulertzeko azalpen ahistoriko, errazegi eta bakarrak ematen dira. Horren ondorioz, askotan azalpen horiek huts egiten dute, bai gatazka horien arrazoiak eta dinamikak ulertzerakoan, bai haien aurrean irtenbideak bilatzerakoan ere.

Gatazka armatuak zein horiek garapenarekin duten harremanaren ezaugarriak eta dinamikak aldakorrek diren heinean, horien inguruko azalpen zein analisiak ere etengabekoak dira. Eta horrela izaten jarraitu beharko dute, horien zergati eta ondorioen inguruko argazki ahalik eta orokorrena izan dezagun, eta neurri ahalik eta sentikor eta inklusiboenak hartzen lagun dezaten. Beste begirada eta hurbilketa batzuk behar-beharrezkoak dira, analisisan botere-harremanak –gizonen eta emakumeen arteko desberdintasuna barne-zentroan ipini eta kolokan jartzen dituztenak. Hortik hasita, helburuak gatazka armatuen eta indarkeriaren analisia aberastea eta errealitatea bake zabalago baterantz eramatea izan behar dira.

Bibliografia

- BOUTA, Tsjeard eta FRERKS, George (2001): *The Role of SNV in Developing Countries in Internal Armed Conflict*, Netherlands Institute of International Relations Clingendael, Haga.
- BUTLER, Michael J. (2009): *International Conflict Management*, Routledge, Londres eta New York.
- DUFFIELD, Mark (2001): *Global Governance and the New Wars: the Merging of Development and Security*, Zed Books, Londres eta New York.
- GALTUNG, Johan (1969): "Violence, Peace and Peace Research", *Journal of Peace Research*, 6(3), 167-191.
- GALTUNG, Johan (1998): *Tras la violencia, 3R: Reconstrucción, reconciliación, resolución. Afrontando los efectos visibles e invisibles de la guerra y la violencia*, Bakeaz eta Gernika Gogoratzuz, Bilbo eta Gernika-Lumo.
- GURIDI, Luis (2017): *Garapenari buruzko pentsamenduaren bilakaera: teoriak, estrategiak eta adierazleak*, Hegoak Zabalduz, 1 zk., UPV-EHU, Bilbo.
- JUBETO, Yolanda eta LARRAÑAGA Mertxe (2017): *Garapena feminismitik aztertzen*, Hegoak Zabalduz, 3 zk., UPV-EHU, Bilbo.
- KALDOR, Mary (1999): *New & Old Wars. Organized Violence in a Global Era*, Polity Press, Cambridge.

- KUEHNAST, Kathleen; DE JONGE OUDRAAT, Chantal eta HERNES, Helga (2011): "Introduction", hemen: KUEHNAST, Kathleen; DE JONGE OUDRAAT, Chantal eta HERNES, Helga (ed.): *Women and war: power and protection in the 21st century*, United States Institute of Peace Press, Washington D.C., 1-18.
- LEDERACH, Jean Paul (1997): *Building Peace, Sustainable Reconciliation in Divided Societies*, United States Institute of Peace Press, Washington D.C.
- MAZURANA, Dyan, (2005): "Gender and the Causes and Consequences of Armed Conflict", hemen: MAZURANA, Dyan; RAVEN-ROBERTS, Angela eta PARPART, Jane (ed.): *Gender, Conflict and Peacekeeping*, Rowman & Littlefield Publishers, Lanham (Maryland, Ameriketako Estatu Batuak), 29-42.
- MUJKA, Itziar (2017a): "Civil Resistance Processes in the International Security Map", Hegoa Lan-Koaderno, 72. zkia, Hegoa, Bilbo.
- MUJKA, Itziar (2017b): "Nazioarteko gatazkak", hemen: GUTIERREZ-SOLANA, Ander (koord.), *Nazioarteko Harremanetako 14 giltza-hitz*, UPV/EHU Argitalpen Zerbitzua, Bilbo, 127-137.
- PANKHURST, Donna (2004): "'The sex war' and other wars. Towards a feminist approach to peacebuilding", hemen AFSHAR, Haleh y Deborah EADE (edk.), *Development, Women and War. Feminist Perspectives*, Oxfam International, Oxford, 8-42.
- PEREZ DE ARMIÑO, Karlos (2007): "Aproximación a los debates sobre las causas de las guerras civiles contemporáneas", hemen: DE CASTRO, José Luis eta ORUETA, Gorka (ed.): *Escritos de internacionalistas en homenaje al Profesor Iñaki Aguirre Zabala*, UPV/EHU Argitalpen Zerbitzua, Bilbo, 313-335.
- SARKEES, Meredith Reid (2014): "Patterns of Civil Wars in The Twenty-First Century: The Decline of Civil War?", hemen: NEWMAN, Edward eta DEROUEN, Karl Jr. (ed.): *Routledge Handbook of Civil Wars*, Routledge, Londres eta New York, 236-256.
- THEMNER, Lotta eta WALLENSTEEN, Peter (2014): "Armed Conflicts, 1946-2013", *Journal of Peace Research*, 51(4), 541-554.
- WALLENSTEEN, Peter (2014): "Theoretical Developments in Understanding the Origins of Civil War", hemen: NEWMAN, Edward eta DEROUEN, Karl Jr. (ed.): *Routledge Handbook of Civil Wars*, Routledge, Londres eta New York, 13-27.
- zirion, iker (2017a): "Características de los conflictos armados en África Subsahariana y su incidencia en las violaciones de derechos humanos", hemen: SOROETA, Juan (zuz.): *Anuario de los Cursos de Derechos Humanos de Donostia-San Sebastián. Donostiako Giza Eskubideei Buruzko Ikastaroen Urtakaria*, XVI.vol., Thomson-Reuters- Aranzadi, Bilbo, 351-390.
- zirion, iker (2017b): "Segurtasuna", hemen: GUTIERREZ-SOLANA, Ander (koord.): *Nazioarteko Harremanetako 14 giltza-hitz*, UPV/EHU Argitalpen Zerbitzua, Bilbo, 113-125.
- zirion, iker (2018): *Desarme, desmovilización y reintegración de ex combatientes. Género, masculinidades y construcción de paz en la República Democrática del Congo*, Tirant Lo Blanch, Valentzia.

- 1. Garapenari buruzko pentsamenduaren bilakaera: teoriak, estrategiak eta adierazleak.** Luis Guridi, Hegoa Institutua Ekonomia Aplikatua I Saila. 2017.
- 2. Garapena eta iraunkortasuna: bilakaera, bateragarritasuna eta ikuspegiak.** Iker Etxano Gandariasbeitia, Ekonomia Aplikatua I Saila, UPV/EHU. 2017.
- 3. Garapena feminismotik aztertzen.** Yolanda Jubeto Ruiz, Mertxe Larrañaga Sarriegi, Hegoa Institutua, Ekonomia Aplikatua I Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
- 4. Garapenerako lankidetzeta eta bere bilakaera.** Irati Labaien Eguirena, Jorge Gutiérrez Goiria, Hegoa Institutua, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
- 5. Amildegia: krisi ekosozialari aurre egiteko zenbait oinarri.** Joseba Azkarraga Etxagibel, Soziologia Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
- 6. Migrazioak eta garapena Win-win agertokia posible ote?** Gorka Moreno Márquez, Xabier Aierdi Urza, Ikuspegi – Euskal Immigrazioaren Behatokia. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- 7. Ekonomia soziala: Ikerketa-objektua eta analisirako lanabesak.** Enekoitz Etxezarreta Etxarri, Juan Carlos Pérez de Mendiguren Castresana, Ekonomia Aplikatua I Saila. Gezki Institutua. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU. Enpresen Antolaketa Saila. Hegoa Institutua. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
- 8. Globalizazioa eta tokiko garapena.** Mikel Zurbano, Elena Martnez Tola, Xabier Gainza, Pablo Arrillaga, Ekonomia Aplikatua I Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea.
- 9. XXI. mendeko pobrezia. Benetan ezabatzeko proposamenak.** Alfonso Dubois Migoya, UPV/EHUko irakasle erretiratua, Hegoa Institutua.
- 10. Elikadura-sistemak: Elikadura Burujabetzaren eta Agroekologiaren estrategia askatzaileak.** Efren Areskurrinaga Mirandona, Ekonomia Aplikatua I UPV/EHU eta Hegoa Institutua. Mirene Begiristain Zubillaga, Finantza Ekonomia II UPV/EHU eta Hegoa Institutua. Eduardo Malagón Zaldua, Ekonomia Aplikatua V UPV/EHU Hegoa Institutua.
- 11. 2030 Agenda eta Garapen Jasangarrirako Helburuak: jatorria, edukia eta jarraipena.** Andrés Fernando Herrera Herrera, HEGOIA Institutua, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU).
- 12. Gobernantza eta herritarren partaidetza.** Jone Martínez-Palacios, Andere Ormazabal Gaston, Igor Ahedo Gurrutxaga, EHUko Politika Zientzia eta Administrazio Saileko kideak eta demokrazia partizipatiboari buruzko Parte Hartuz ikerketa-taldeko ikertzaileak.
- 13. Gatazka armatuak, bakea eta garapena.** Itziar Mujika Chao eta iker zirion landaluze, UPV/EHUko Nazioarteko Zuzenbide Publikoa, Nazioarteko Harremanak eta Zuzenbidearen Historia Saileko irakasleak, eta Hegoa Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutuko ikertzaileak.

